

# Sentimenduak adierazten

Konpromiso bat daukagunean (azterketa, jendaurrean hitz egitea...), nola sentitzen gara? Zer sentimendu izaten ditugu? Zeren beldur izaten gara?



Horretarako, irratsaio batetik abiatuko gara, eta ariketa hauek egin ditzakezu:


- Audioan entzuten diren kezkek nork esan dituen identifikatu.
- Erreparatu kezkek adierazteko erabiltzen diren hizkuntza-formei, eta egoera batzuetan erabili.

Markatu taulan



Irratsaio honetan, bertsolari batzuek zer kezka dauzkaten kontatzen dute, datorren txapelketaren aurrean. Esan ondorengo kezka hauek nork esan dituen: gizonezkoek ala emakumezkoek?

	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Egiten dudana lanarekin <b>konforme ez geratzea.</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Nire helburua <b>ez betetzea.</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gertakari hori <b>oharkabean pasatzea.</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<b>Blokeatuta geratzea.</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Egin nahi ez dudana egitea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<b>Errazkerian erortzea.</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Neure buruarekin <b>haserre gelditzea.</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Aho-zapore <b>txarrarekin gelditzea.</b>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



Kezka gehiago bururatzen al zaizkizu halako egoera batean? Komentatu beste norbaitekin.

<https://labur.eus/GCOlf>

- *Barregarri geratzea.*
- *Burua zuri gelditzea.*

## Gure sentimenduak

Erreparatu bertsolarien kezkei, begiratu hizkuntza-formei. Konturatuko zinenez, denek antzeko egitura daukate:

### Esaldiak

- Neure buruarekin haserre gelditzea.
- Egiten dudana lanarekin konforme ez geratzea.
- Gertakari hori oharkabea pasatzea.
- Nire helburua ez betetzea.
- Aho-zapore txarrarekin gelditzea.
- Blokeatuta geratzea

### Hizkuntz formak

- Konforme/haserre/barregarri/gaizki/blokeatuta... gelditzea/geratzea/egotea
- Nire helburuak/asmoak/nahi dudana.... ez betetzea
- Nahi ez dudana gertatzea, tontoarena egitea
- Blokeatzea ....

Kontatu zer-nolako sentimenduak (kezka, poza, esperantza...) izaten ditugun halako egoeretan (nahi baduzu, erabili goragoko hizkuntz forma horiek):

- Azterketa bat egin behar dugunean
- Jendurrean hitz egin behar dugunean
- Ospakizun batean: urtebetetze batean, familian, lagun artean...
- Kirol-proba batean.

- Azterketa batean nire ilusioa izaten da proba gaitztea
- Jendurrean, nire kezka izaten da barregarri geratzea.



	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Egiten dudan lanarekin <b>konforme ez geratzea.</b>		
Nire helburua <b>ez betetzea.</b>		
Gertakari hori <b>oharkabean pasatzea.</b>		
<b>Blokeatuta geratzea.</b>		
Egin nahi ez dudana egitea.		
<b>Errazkerian erortzea.</b>		
Neure buruarekin <b>haserre gelditzea.</b>		
Aho-zapore <b>txarrarekin gelditzea.</b>		

## Transkripzioa

BAT, GIZONEZKOA. Ba egindakoa eginda, neure buruarekin haserre gelditzea. Ze, bueno, badira ja txapelketa batzuk neure buruari esan niola: "Segitzez gero, egindakoarekin konforme geratu behar duzu: preparatutakoarekin konforme geratu behar duzu, eta saioan egindakoarekin konforme". Hori esatea erraza da, baina gero ondo ateratzen ez denean ez da hain erraza izaten.

BI, EMAKUMEA. Ba ez litzaidake gustatuko azkeneko txapelketan geratu nintzen zapore eskasarekin ez nuke gelditu nahi. Hor Gasteizen izan nuen egun txar-txar-txar-txar bat eta ez nuke... Hori ez baldin bada gertatzen, beste denarekin konformatzen naiz.

HIRU, GIZONEZKOA. Ba nire helburua ez betetzea. Hau da, nire helburua bertsoan egitea bada, ba hori ez lortzea, hori ez ematea.

LAU, GIZONEZKOA. Egia esan txapelketa niretzat laburra izango da aurren, egun batean hasi eta bukatuko da. Eta orduan, oharkabean pasatzea litzateke niretzat txarra eta beldur gehien ematen didana. Nahiko nuke hasieratik aski motorra ondo berotuta sartu.

BOST, EMAKUMEA. Ez litzaidake gustatuko, adibidez, egin nahi ez nukeen hori egitea, esate baterako ezintasunagatik, ez? Ba batekoaren larritasun horretan ba... Demagun, gustuko ez dudana bai, edo ikuspegi bat edo, ez dakit, niretzat errazkeria kontsideratuko nukeen zerbait, edo "egin beharra" izatea.

SEI, EMAKUMEA. Batez ere blokeatzea da beldur gehien ematen didana. Ba ez egotea momentu horretan hor, beldurra egotea mikrofonoan eta ez ni. Eta hori, askatu gabe sentitzea. Bueno, batez ere da ez egotea ni hor.